



BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO



Lehen Hezkuntza

**4. Modulua: ANIZTASUNA ETA ESKOLA
DIZIPLINARTEKO LANA (DaL) EGITEKO GIDA**

2026-2027

Aurkibidea

1. Aurkezpena.....	3
1.1. Testuingurua	3
1.2. Taldeen osaketa, ordu kopurua eta egutegia	4
2. Arautegia eta Salbuespenak	4
3. Helburuak, Gaitasunak eta Ikaskuntza-eremak.....	6
3.1. Helburuak.....	6
3.2. Gaitasunak.....	6
3.3. Ikaskuntza-eremak.....	6
4. Lanaren garapena.....	7
4.1. Jarraibideak	7
4.2. Entregatu beharreko lana.....	8
4.3. Egindako lanaren ahozko defentsak, dagokion tutorearen aurrean.....	9
4.4. Agertokiaren deskribapena	9
5. Ebaluazioa	10
6. ERANSKINAK.....	11
I. ERANSKINA. Idatzizko lana ebaluatzeko errubrika	11
II. ERANSKINA. Taldearen barne arauak.....	13
III. ERANSKINA. Akta egiteko txantiloia.....	14
IV. ERANSKINA. Jarraitutako prozesuaren gaineko banakako hausnarketa bideratzeko txantiloia	15
V. ERANSKINA. Koebaluazio-orria.....	16
VI. ERANSKINA. Kronograma.....	17

1. Aurkezpena

Eskola testuinguruan topa dezakegun aniztasunaren adierazle dira kultura aniztasuna, gaitasun aniztasuna, sexu joeren aniztasuna, askotariko baliabide sozioekonomikoen aniztasuna eta genero aniztasuna. Eskola inklusiboak sustatu behar du ikasleen arteko ezberdintasuna aberastasuna bilakatzea, hala nola, bizikidetza positiboa sustatuz eta erantzukizunez jokatzuz hezkuntza lanetan.

Haatik, testuinguru ugarietan, lehen hezkuntzako geletan ere, inklusioa oztopa dezaketen fenomeno kultural eta indibidualak aurki ditzakegu. Transexualitatearen kasuan, nabaria da gizartean genero identitatearen inguruan dagoen ezjakintasuna eta, are gehiago, genero identitatea dela eta hauteman daitezkeen errespetu faltak.

“Aniztasuna eta eskola” moduluan sakonduko dugu inklusioko testuingurua oztopa dezaketen alderdi anitzetan. Hausnartuko dugu, jarrera diskriminatzaileen aurrean, arduraz jokatzeko ahalbidetzen duten balore etiko eta profesionalen inguruan. Horrez gain, ezagutza zientifikoak landuko dira, kalitatezko hezkuntza bermatzeko.

1.1. Testuingurua

Aniztasuna eta Eskola Modulua Lehen Hezkuntzako Gradu 2. mailan egiten da, bigarren lauhilekoan. Modulu honen Diziplinarteko Lanean lantzeko adostutako gaiak dira: Identitate aniztasuna eta bizikidetza.

Modulu honetako DaLari 4,5 kreditu dagozkio guztira. DaLak irakasgai bakoitzaren % 16 hartzen du, urte osokoa den *Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza* irakasgai izan ezik, kasu honetan % 8 izanik.

4. modulua bost irakasgai osatzen dute eta DaLaren kredituak irakasgai bakoitzak moduluan daukan neurriaren arabera banatzen dira.

4. MODULUKO DIZIPLINARTEKO LANAREN ATALA IRAKASGAIAK		
IRAKASGAIAK	Kredituak	Kalifikazio ehunekoa
<i>Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza</i>	0,5 kr.	% 8
<i>Eskola Inklusiboaren Oinarriak</i>	1 kr.	% 16
<i>Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Hezkuntza</i>	1 kr.	% 16
<i>Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntza</i>	1 kr.	% 16
<i>LHrako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanitzetan</i>	1 kr.	% 16

Moduluko Diziplinarteko Lana (DaL) moduluko irakasgai guztien osagaia da, eta egiteko horretan ikasturteko gaitasunak eta titulazioko zeharkako gaitasunak landuko dira. Lana egiteko erabiliko den metodologia Arazoetan Oinarritutako Ikasketa (AOI) izango da.

1.2. Taldeen osaketa, ordu kopurua eta egutegia

- Lana egiteko, ikasgelako praktika-taldeetatik 3-4 ikaskideko taldeak osatuko dira eta talde bakoitzari tutore bat esleituko zaio (tartean diren irakasgairen bateko irakaslea izango da, betiere).
- Lana egiteko, ikasleen 100 lanordu behar dira (4 kreditu). Horietako bitara (40 ordu) bertaratuta egin beharko dira, dagozkien eskola ordutegietan tartean diren arlo guztien parte-hartzearekin (bai eskola magistralak bai ikasgelako praktikak). Gainerako orduak bertaratu gabe egitekoak dira, eta ikasleak, batez beste, astean 10 ordu inguru eskaini beharko dizkio lanari.
 - DaLaren garapenari irakasgai bakoitzak hainbat saio eskainiko dizkio, data zehatzak moduluaren aurkezpenean zehaztuko dira.
- Komenigarria da 13. astean tutoreari lanaren zirriborro bat entregatzea (apirilaren 19tik 23ra).
- Lana 14. astean entregatuko da.
- Lanaren defentsa, taldeka eta banaka, dagokion tutorearekin egingo da, tutoretza ordutegian, 15. astean (maiatzaren 10tik 14era).
- Lantalde bakoitzaren tutorearekin gutxienez bi saio egitea proposatzen da, 5. astetik 12. astera bitartean.

2. Arautegia eta Salbuespenak

Moduluko Diziplinarteko Lana (DaL) ikasle guztiek egin behar dute.

Talde hirueledunaren kasuan, lana egiteko hizkuntza aukeratzerako orduan, ikasle talde bakoitza bere tutoreak proposatzen dizkien aukeren artean hautatuko du.

DaLari dagokion nota irakasgai bakoitzaren azken notaren % 16 izango da (1,6 puntu), *Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza* irakasgaiaren izan ezik, non % 8 izango den (0,8 puntu).

Irakasgaia gaingitu ez bada, baina bai DaLa, DaLari dagokion nota ezohiko deialdira arte gorde egingo da (ekaina-uztaila).

Hainbat arrazoi direla medio DaLa ez jarraitu bezala egingo duten ikasleek edo gaingitu ez duten ikasleek ohiko eta ezohiko deialdian DaLaren lana entregatzeaz gain, honen inguruko frogak ebatzi beharko dute.

DaLa egin behar ez duten ikasleen kasuan, irakasgaiaren ebaluaketek kalifikazioen % 100 suposatuko du, DaLaren ehunekoa aplikatugabe.

Mugikortasun programetako ikasleak: modulu berdineko hiru irakasgai edo gehiagotan matrikulatuta egonez gero, DaLa egin beharko dute.

Titulazioa modularra denez, eta lanak diziplinarteko edukia duenez, ikasleak jarraikako ebaluazio sisteman parte hartu ezin badu justifikatutako arrazoiengatik izan beharko da (lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, % 33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea

edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKEn bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak). Kasu horretan, 4. moduluko DaLarekin erlazionatutako proposamena egin beharko du, eta ahoz defendatu, horretarako zehaztuko den datan.

Egoera horretan dauden ikasleak moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) jarri beharko dira harremanetan, eta honek behar duten informazioa emango die, hala nola lana entregatzeko eta defendatzeko data zein tokia; lan horretarako ez da tutorerik egongo eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko.

Proba horren balioa modulu honetan DaLari dagokion berdina izango da, hau da, % 16 irakasgai bakoitzaren kalifikazioan, *Arteen eta Ikusizko kulturaren Hezkuntza* irakasgaian izan ezik, non balioa % 0,8 izango den. DaL horren kalifikazioa ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da (ekaina-uztaila).

Edonola ere, UPV/EHUK 2016ko abenduaren 15ean hartutako erabakiak eta BOEn argitaratuta duen araudia aplikatuko da (EHAA, 50 zb. 2017ko martxoaren 13a).

DaLa egiteaz salbuestea

1. Modulu berdineko hiru irakasgai edo gehiagotan matrikulatuta egonez gero, DALa egin beharko dute.
2. Graduako ikasleek DALa egin beharko dute, baldin eta modulu ateko hiru irakasgaitan matrikulatuta badaude, gutxienez. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango.
3. DALa egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10en gainean izango da, DALaren portzentajea aplikatu gabe.
4. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) bakar bateko DALa burutuko dute, honako irizpideen ordenari jarraiki: 1. Inoiz egin ez duten moduluko DALa egin beharko dute lehenik; 2. Ikasleak aurretik modulu bietako bat bera ere egin izan ez balu, irakasgai gehien egiteke dituzten moduluko DALa egin beharko du; 3. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DALa.

Aurreko kasuetako edozein eta moduluaren edo titulazioaren koordinatzailearekin hitz egitea gomendatzen da, egoeraren berri emateko.

3. Helburuak, Gaitasunak eta Ikaskuntza-emaitezak

3.1. Helburuak

- Graduako zeharkako gaitasunak aplikatzea: talde-lana, ahozko eta idatzizko komunikazioa, informazio bilaketa, informazioa irakurri eta modu kritikoan aztertzea.
- Arazo jakin baten ebazpenean moduluaosatzen duten gaien inguruko ezagutzak integratzea eta erlazionatzea.

3.2. Gaitasunak

- Hezkuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatzea eta ikastetxean eta ikasgelan behar bezala esku hartzeko beharrezkoak diren baliabideez hornitzea, ikasleen beharrak eta zailtasunak kontuan hartuz, inklusio irizpideekin.
- Eskolako aniztasunari loturiko arazo konplexuak eta testuinguruan kokatutakoak diziplinarreko ikuspegi batetik ebaztea, diziplina zientifiko bakoitzaren ekarpenak identifikatuz.
- Garapen Jasangarriko 4. 5. eta 10. helburuetan sakontzeko gaitasuna izatea.
- Graduako zeharkako gaitasun hauen lorpen maila etengabe garatzea eta hobetzea.

3.3. Ikaskuntza-emaitezak

- Inklusio ikuspuntutik, Hezkuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatu ditu.
- Aukeratutako arazoa diziplinarreko ikuspegi batetik ebatzi du.
- Idatzizko baieztapenak arrazoitu eta argudiatu ditu.
- Ideiak koherentziaz eta kohesioz aurkeztu ditu.
- Kontzeptu eta alderdi nagusien arteko harremanak argitasunez eta originaltasunez ordenatu ditu.
- Idatzizko lana behar bezala aurkeztu du.
- Idatzizko hizkuntza formala behar bezala erabili du.
- Bibliografia eta aipuak APA formatuan aurkeztu ditu.
- Taldearen bileretara bertaratu da (aktak).
- Jarraitutako prozesuko mugarri garrantzitsuenak deskribatu eta aztertu ditu.
- Taldean ikasitakoa modu arrazoituan baloratu eta ebaluatu du.
- Aldaketak edo hobekuntzak proposatu ditu.
- Taldeko ikaskuntza prozesua modu arrazoituan deskribatu, aztertu eta baloratu du.
- Lanaren alderdi nagusiak argi azaldu ditu.
- Zuzentasunez adierazi da.
- Jarraitutako prozesua eta egindako lana ongi ezagutu eta menperatu ditu.

4. Lanaren garapena

4.1. Jarraibideak

A) Taldeka, "arazo" edo hasierako egoera bat aukeratuko dute, baita aukeraketa arrazoitu ere (bi egoera eskainiko zaizkie ikasleei).

B) Arazoa ebatziko dute, AOI metodologiaren jarraibideen arabera:

- ☐ **Egoera irakurri** (bakarka eta taldean), zalantzak azaldu (terminologia, kontzeptuak, egoerak...) eta egoera ebatzeko bide desberdinak planteatu (kontsultak non egin ditzaketen, nola...). Arazoaren alderdi desberdinak azaltzea eta batera jartzea. **Arazoazehaztea**.
- ☐ Zer dakigu arazo edo gai honi buruz? Ezagutzen dugu antzeko arazoren bat? Ezer entzun al dugu horri buruz? Antzeko ezer bizi izan al dugu? Arazoa konpontzeko modu desberdinak proposatzea (**hipotesiak**).
- ☐ Taldea osatzen duten pertsonen **banakako ekarpenak** idatziko dira; alde batetik, gaiari buruz dakitena eta, bestetik, **konpontzeko bilatutako alternatiba posibleak**.
- ☐ Beste zerbait jakin behar dugu? Non bila dezakegu? Moduluko irakasgai bakoitzak zer laguntza ematen digu arazoa ebatzeko? Zereginak eta informazio berria biltzeko aukerak banatu. **Informazio bilaketa, hautaketa eta azterketa**.
- ☐ **Emaitzak taldeari agertzea**. Informazio berria aztertzea eta **arazoa berriro zehaztea**.
 - Arazo honen kausak, jatorria eta ondorioak ezagutzen saiatu behar da, **ikuspuntu posible guztietatik** osorik **aztertu** behar da (moduluko irakasgaiei dagokienez), funtsezko alderdiak, **ebatzeko esku-hartze ildo posibleak detektatuz**.
 - Ikertutakoaren zergatia baloratu, ezagutu berri duguna zalantzan jarraraztea, balioak hartzea sustatzeko edo, behintzat, errealitatearen aurrean jarrera kritikoa izateko.
- ☐ Arazoaren planteamenduari erantzuten dion **esku-hartze proposamen** bat diseinatzea.
- ☐ **Ikasitakoaren eta eginiko prozesuaren** gaineko **ebaluazioa** egitea, emaitzak lortzea eta entregatu beharreko lanaren azken lanketa egitea. Ondorioak

AOI metodologia zertan datzan hobeto ulertzeko hurrengo artikulua irakurketa gomendatzen da:

Morales Bueno, P. eta Landa Fitzgerald, V. (2004). Aprendizaje basado en problemas / Problem-based learning. *Theoria*, 13, 145-157.

Jarraibideak erritmo onean garatu ahal izateko, gomendagarria da kronograma bat osatzea (laneko atal bakoitza noiz egin zehaztuz, tutoretzak noizko adostu...). Kronogramari esker lana antolatu eta beharko duzuen denbora aurreikusi ahalko duzue, betiere kontuan hartuz bidean aldaketak egon daitezkeela (VI. ERANSKINA). Hurrengo taula har dezakezue oinarritzko eredu gisa, eta zuen modura antolatu/eraldatu:

Zer landu atal bakoitzean NOIZKO	
Sarrera	
1. Egoera aukeratu eta arrazoitu	
* Bizikidetzaren egoera aukeratuz gero, testuinguruaren deskribapena gehitu.	
2. Arazoa ebatzi	
2.1. Analisia	
2.2. Hipotesiak, helburuak	
2.3. Banakako ekarpenak: konpontzeko bilatutako alternatiba posibleak jaso	
2.4. Informazio bilaketa eta irakasgaietako ekarpenak	
2.5. Arazoaren kausak, jatorriak eta ondorioak zehaztu. Ikertutakoaren balorazioa egin.	
3. Esku-hartze proposamen baten diseinua	
Bibliografia	APA 7 arauak jarraituz

4.2. Entregatu beharreko lana

Lana 14. astean entregatuko da eta, **gehienez, 20 orrialde** izango ditu. Lanak ondoko atalak izango ditu:

- Sarrera.
- Aukeratutako egoera eta aukeraketa horren justifikazioa.
- Arazoa ebazteko jarraitutako prozesua (aurreko taulako 2.puntua), urrats bakoitzean iturri desberdinetatik lortutako informazioa esplizitu eginez: kontzeptuak, teoriak, dokumentuak, esperientziak, eta abar.
- ESKU-HARTZEA
- Erreferentzia bibliografikoak.
- Eranskinak:
 - Taldeko bileren aktak (III. ERANSKINA) eta arautegia (II. ERANSKINA)
 - Banakako hausnarketa-autoebaluazioa (IV. ERANSKINA)
 - Taldeko koebaluazioa (V. ERANSKINA)
 - Kronograma (VI. ERANSKINA)

Lanean unibertsitate lan guztiek bete beharreko ezaugarriak errespetatuko dira jarraitu beharreko eskemari, formatuari, argitasunari, antolakuntzari eta APA7 araudiaren aipuak eta erreferentzia bibliografikoei (eskolako webgunean argitaratuta dagoena hartuko da erreferentzia moduan) eta abarri dagokienez.

Hizkuntzaren erabilera egokia nahitaezkoa da. Adierazpen linguistiko zuzena eskatuko da eta, akatsak oso nabarmenak badira edo testua irakurgaitza bada — itzulpen edo adierazpen linguistiko okerrak direla eta —, lana ongi entregatu arte ez da zuzenduko.

PLAGIOA: hirugarren batek burututako lan batetaz kopia edo imitazioaren bitartez jabetzea debekatuta dago. Ikasleak edo ikasle-taldeak aipamen arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa burutu delaren susmoak lana atzera botatzea ekar dezake eta, ondorioz, DaLa ez gainditzea.

4.3. Egindako lanaren ahozko defentsa, dagokion tutorearen aurrean

- 15. asteko tutoretza orduetan egingo da.
- Tutoreak zehaztuko du aurkezpena eta defentsa nola egin.
- Taldeko kide guztiak bertan izango dira, lana azaltzeko eta defendatzeko moduan.

4.4. Agertokien deskribapena

1. Egoera: Identitate aniztasuna

Ander Lehen Hezkuntzako bostgarren mailan hasiko da aurten. Ikastetxean bi urte egingo ditu oraindik bere ikaskideekin batera. Ondoren, beste herri bateko institutu batera joango da ikastetxeko ikasleekin eta beste herri batzuetako neska eta mutil batzuekin batera.

Ander ez da identifikatzen bere sexu biologikoarekin. Duela bost urte hasi zen bereganatzen identifikatzen den generoaren ezaugarriak, neska. Genero-disforia jasan zuen prozesuaren hasieran. Horrela, pixkanaka-pixkanaka beste genero batekin identifikatzen joan da eta urteetan zehar, hainbat alderditan eragin du, hala nola janzteko moduan, orrazkeran, etab. Familiaren babesa izan du une oro. Aitzitik, bere bizitza akademikoan zehar, gelako ikaskide batzuek txantxa, errespeturik gabeko komentarioren bat edo hizkera zikina erabili dute berarekin; sare sozialetan ere, ohiko genero-rolekin bat ez datorrelako.

Ikasle honek erabaki du, aurten jada ez dela Ander izango, Andrea baizik. Bere nahia eta asmoa da bere ikaskideek eta gainerako pertsonak neska gisa onartzea.

Tutoreak ez zuen espero egoera hau eta ez du argi nola bideratu ezta zer pauso eman behar duen ere.

2. egoera: Bizikidetza

Bizikidetzarekin lotuta kezka dago eskola testuinguruan kalitatezko harremanak bermatzen ote diren. Eskola esparruan, bizikidetzarekin lotutako arazo/egoera problematiko bat identifikatu beharko da eta horri irtenbide bat eman, alegia, elkarbizitzan eragiten duen arazo edo gatazka baten oinarrituta esku-hartze bat diseinatzea. Helburua da arazoa antzematea (egoera gatazkatsua sortu duten kausak eta faktoreak identifikatzea) eta honi erantzun bat ematea esku hartze baten bidez, eskuratutako ezagutza aplikatuz.

5. Ebaluazioa

Zer ebaluatzen da	Ehunekoak	Nork ebaluatzen du?	Tresnak
IDATZIZKO LANA (I. ERANSKINA)			
- Aukeratutako egoera eta aukeraketaren justifikazioa. - Arazoa ebazteko jarraitutako prozesua, urrats bakoitzean iturri desberdinetatik lortutako informazioa esplizitu eginez: kontzeptuak, teoriak, dokumentuak, esperientziak, eta abar.	% 40	Irakasleak	
- Taldearen bileren aktak. - Jarraitutako prozesuaren gaineko talde-hausnarketa. - Taldearen autoebaluazioa.	% 5	Irakasleak (hausnarketa)	Banakako eta taldeko hausnarketan baliagarri eta bideratzeko lagungarri izan daitezkeen txantiloiak emango dira
	% 5	Ikasleak (autoebaluazioa)	
- Jarraitutako prozesuaren gaineko banakako hausnarketa. - Banakako autoebaluazioa.	% 5	Irakasleak (hausnarketa)	
	% 5	Ikasleak (autoebaluazioa)	
AHOZKO DEFENTSA (taldeka eta banaka)	% 40	Irakasleak	

6. ERANSKINAK

I. ERANSKINA. Idatzizko lana ebaluatzeneko errubrika

Ebaluatutako alderdia	Bikaina (10-9)	Oso ona (8-7)	Nahikoa (6-5)	Gutxiegi (<4)
Ideen aurkezpen ordenatua, koherentea eta logikoa.	Ideiak argi eta zehatz azaldu dira, logika arin batez. Aurkibidea, epigrafeak eta azpi- epigrafeak egoki erabili dira lana egituratzeko eta ordenatzeko.	Ideiak koherentziaz azaldu dira lanean zehar, baina argiago ere azal zitezkeen. Aurkibidea egoki erabili da, baina epigrafe edo azpi- epigrafe gehiago erabil zitezkeen lana ordenatzeko.	Lanaren atal batzuk ordenatuak eta koherenteak dira, baina ez lan guztian zehar; alegia, hobetu daiteke. Aurkibidean bada akatsen bat, eta epigrafe edo azpi- epigrafe gehiago erabil zitezkeen lana ordenatzeko.	Ideen azalpenak nahasiak dira, koherentziarik gabeak, eta ez dute ordena logikorik. Nahas- mahas handiko lana. Aurkibidea ez dator bat lanarekin, eta akats ugari dago.
Kritikotasuna, sormena eta heldutasuna.	Ikuspegi berritzailea eta sormenezkoa dakar, heldutasunez arrazoitu da, kalitate handiko erreferentziak txertatu dira eta eztabaida sakona izan da taldekideen artean.	Lanaren ikuspegia beste egile batzuen aipamen edo erreferentzietatik haratago doa, eta ikusten da taldekideen artean eztabaida izan dela, nahiz kritikoagoa eta sortzaileagoa ere izan zitezkeen.	Lanaren ikuspegia erreferentzia garrantzitsu batzuen azterketan oinarrituta dago, baina eztabaida sakonagoa eta kritikoagoa egin beharra zegoen.	Ikuspegia ez da oso berritzailea, ez baitu ezer eskaintzen beste egile batzuen aipu eta erreferentzietatik haratago. Gainera, erreferentziak ez dira ikuspuntu kritiko batetik aztertu.
Gaiaren trataera sakona moduluko irakasgaiaren edukiekin lotuta.	Gaia guztiz ulertu da; irakasgaietako edukiak arrazoituz erabili dira arazoaren trataeran, eta aurkeztutako testuinguruarekin lotu dira.	Gaia ondo ulertu da, moduluko irakasgaiak integratu dira, eta, gutxienez, partzialki ulertu dituzte testuingurua eta gaiarekin lotutako beste gai batzuk.	Gaia nahikoa ulertu da, eta, gutxienez, saiakera bat egin da gaia irakasgaiekin lotzeko eta beste gai batzuekin erlazionatzeko.	Gaia ez da ondo ulertu, ez dira aplikatu irakasgairen bateko edukiak eta ez da loturarik egin intereseko beste gai batzuekin.

Informazio iturrien erabilera.	Informazio iturriak bikain erabili dira, aurrez planteatutako oinarriei eusteko baliatu baitira. Aipu eta erreferentzia guztiak ongi txertatuta daude APA arauen arabera.	Ikuspegi gehienak informazio iturrietan oinarrituta daude. Aipu eta erreferentzia gehienak ongi txertatuta daude APA arauen arabera.	Ikuspegi batzuk ez daude informazio iturrietan oinarrituta. Aipu eta erreferentzia gehienak ongi txertatuta daude APA arauen arabera.	Ikuspegi gutxi edo bat bera ere ez dago oinarrituta informazio iturrietan. Testuan txertatutako aipu eta erreferentziek akatsak dituzte APA arauen arabera.
Terminologia, ortografia eta gramatika.	Terminologia ugari erabili da, eraginkortasunez, eta ortografia eta gramatika guztiz zuzenak dira.	Terminologia egoki erabili da. Lana, oro har, ongi idatzita dago, baina badago ortografia edota gramatika akatsen bat edo beste.	Terminologia egoki erabili da, baina aberatsagoa ere izan zitekeen. Badira ortografia eta gramatika akats batzuk, baina lana ongi idatzita dago, oro har.	Terminologia gaizki erabili da askotan. Ortografia eta gramatika akats ugari daude.

II. ERANSKINA. Taldearen barne arauak

Taldeak funtzionamenduaren barne-arauak ezarriko ditu, aspektua hauek kontuan hartuta:

- Nola bildu informazioa
- Nola banatu lana
- Nola banatu ardurak (bilera koordinatu, akta egin).

III. ERANSKINA. Akta egiteko txantiloia

	Hasiera ordua:	Lekua:	Amaiera ordua:	
Taldearen izena:		Koordinatzailea: Idazkaria: Bozeramalea:		
Bertaratutakoak:		Bertan izan ez direnak:		
Aztertutako gaiak:				
Hartutako erabakiak:				
Hurrengo bilerarako eginkizunak:				
Zer?	Nork?	Noiz?	Materiala	Oharrak:
Hurrengo bileran aztertu beharreko gaiak: 1-				
2-				
3-				
Hurrengo bilkuraren data:		Lekua:	Ordua:	

IV. ERANSKINA. Jarraitutako prozesuaren gaineko banakako hausnarketa bideratzeko txantiloia

Lana hasi aurretik gida irakurri dut eta egin beharrekoa ondo ulertu dudala baieztatu dut taldekideekin batera.	1	2	3	4	5
OHARRAK:					
Lana hasi aurretik, lana burutzeko data eta epeak kontuan hartu eta lanaren garapenerako denboraren antolakuntzan parte hartu dut.	1	2	3	4	5
OHARRAK:					
Modu zuzen eta argian komunikatu naiz, trabarik gabe.	1	2	3	4	5
OHARRAK:					
Lanak luzatzen duen arazoari irtenbideak bilatzerako orduan, irakasgai ezberdinen ezagutzak integratzeko eta erlazionatzeko prozesuan, aktiboki hartu dut parte.	1	2	3	4	5
OHARRAK:					
Informazio bilaketan aktiboki parte hartu dut.	1	2	3	4	5
OHARRAK:					
Bilatutako informazioaren inguruko hausnarketetan aktiboki parte hartu dut eta informazioan ikuspegi kritiko baten bitartez sakondu dut.	1	2	3	4	5
OHARRAK:					
Lana berrirakurri dut entrega egin aurretik, egon zitezkeen akatsak zuzenduz eta APA arauak modu zuzenean erabili ditugula berretsiz.	1	2	3	4	5
OHARRAK:					

V. ERANSKINA. Koebaluzio-orria

KOEBALUAZIOA	1. ikaslea	Justifikazioa	2. ikaslea	Justifikazioa	3. ikaslea	Justifikazioa	...	Justifikazioa	...	Justifikazioa
	0-10		0-10		0-10		0-10		0-10	
1. Taldean partaidetza aktiboaren jarrera mantendu du (taldearen funtzionamenduan lagundu du, bilerak prestatzen, entzuten, eztabaidak errazten eta dinamizatzen...).										
2. Taldearen eztabaidetan ideia berriak eta aipagarriak eman ditu.										
3. Taldeak burututako bilera guztietara joan da esleitutako zereginak eginda.										
4. Esleitutako lana egiteko behar bezain beste denbora eman du.										
5. Egiaztatutako iturrietatik kontsultatu du materiala (zehaztu).										

VI. ERANSKINA. Kronograma

	Zer landu atal bakoitzean	NOIZKO
Sarrera		
1. Egoera aukeratu eta arrazoitu * Bizikidetzaren egoera aukeratuz gero, testuinguruaren deskribapena gehitu.		
2. Arazoa ebatzi		
2.1. Analisia		
2.2. Hipotesiak, helburuak		
2.3. Banakako ekarpenak: konpontzeko bilatutako alternatiba posibleak jaso		
2.4. Informazio bilaketa eta irakasgaietako ekarpenak		
2.5. Arazoaren kausak, jatorriak eta ondorioak zehaztu. Ikertutakoaren balorazioa egin.		
3. Esku-hartze proposamen baten diseinua		
Bibliografia	APA arauak jarraituz (moduluaren aurkezpenean zehaztuko da zein arau jarraitu behar diren)	